

HIZKUNTZEN KUDEAKETARI LOTUTAKO PRAKTIKA ONA

Datu hauek eta praktika onen fitxa betetzerakoan, baimena ematen duzu goian agertzen diren eremuak eta betetako praktika onen fitxa Euskaliteko webgunean argitaratzera, modu irekian zabaldu daitezten.

1. Erakundearen izena:	Daiteke Gizarte Aholkularitza
2. Sektorea:	Komunitatearentzat, pertsonalak eta enpresentzako zerbitzuak
3. Langile kopurua:	21 (19 emakume/ 2 gizon)
4. Webgunea:	www.daiteke.com
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	<p>Tokiko ekonomia sustatzeko eta jendartearen garapenaren alde lan egitearen xedearekin sortu zen Daiteke 1995.urtean.</p> <p>Enplegu, berdintasunean eta formazio esparruetan egiten dugu lan. Lan orientaziorako aholkularitza ematen, genero ikuspegia txertatzen, autoenplegua eta formazioa eskaintzen, proiektu integralen diseinu eta kudeaketaren bitartez.</p> <p>Hasiera-hasieratik, erakunde ezberdin asko izan dira gurekin elkarlanean ibili direnak, besteak beste:</p> <p>Tokiko eta Eskualdeko Garapen Agentziak, Mankomunitateak, Udalak, Behargintzak, EAE osatzen duten hiru probintziatako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritza, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila, Lanbide Heziketa Zentroak, Euskal Herriko Unibertsitatea, Emakunde, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa eta erakunde pribatuak.</p> <p>Azken urteetan hainbat proiektu garatu ditugu eta beste hainbatetan dihardugu lanean, hona hemen zenbait erreferentzia:</p> <ul style="list-style-type: none">• Enplegua: Lanbide Orientazioa, Lanbide Laneratzea, Enplegu Zentruak, Auzolan, Lanera, gizarteratzea,...• Berdintasuna: Diagnostikoak eta planak, sentsibilizazio jarduerak, udaletxetako asistentzia teknikoa, indarkeria matxistaren prebentziorako programak...• Formazioa: Lanbide Formazioa, Formazio Irekia, On-line Formazioa,...• Enpresak: Txekin, Emekin, aukeratze-prozesuak,...• Adinaren kudeaketa. <p>Bestalde, asko izan dira lagundu ditugun pertsonak, beraien ikasketa maila edo formazioa kontuan izan gabe: langileak, langabetuak eta gizarteratze arazoak dituztenak, iraupen luzeko langabetuak, etorkinak, 45 urte baino gehiago dituzten langabetuak, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren hartzaileak, ekintzaileak...</p>

Harremanetarako datuak

Eremu hauek hautazkoak dira. Datuak betetzen badituzu, webgunean azalduko dira bere horretan. Horrela, zure praktika interesgarria suertatu zaion erakundea zurekin harremanetan jarri ahal izango da:

Solaskidearen izen-abizenak:	Lidia Hernandez Robles
Helbide elektronikoa:	berdintasuna@daiteke.com
Telefonoa:	943 43 03 12

KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

1. Praktika onaren titulua:	Berdin Berri! Eduki digital feministak, euskaratik eta euskaraz.
2. Praktika onaren azalpena: Zer da? Zertan datza? Nondik dator? Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?	<p><u>EGITASMOAREN HELBURUA:</u> Berdintasunaren aldeko jarrerak eta portaerak bultzatzen dituzten euskarazko eduki digitalak diseinatzea, lantzea, garatzea eta eguneratzea, pedagogia feministaren ikuspegitik eginda, bizikidetzeta eta harremanak hobetzeko, eta berdintasunaren, giza eskubideen eta indarkeria matxistaren prebentzioaren alde hezteko.</p> <p><u>NONDIK DATOR?</u></p> <p>Berdintasun-zerbitzutik, hezkuntza-komunitateari zuzendutako hainbat programa kudeatzen ditugu, indarkeria matxista prebenitzeko helburuarekin. Programa horiek batez ere gazteei zuzenduta daude, baina ikuspegi holistakoago batetik lan egiten saiatzen gara eta jendarte osoaren arteko tratu onak sustatzen (familiak, irakasleak, eremu ez-formaleko hezitzaileak...).</p> <p>Programa horiek garantzerako momentuan gazteei zuzendutako euskara eta feminismoa uztartzen duten baliabide falta sumatu genuen, eta gutxika gure baliabide propioak sortzera ekin genion.</p> <p>Hau honela, programa horien barruan, euskarazko "<i>Fanzine</i>" bat sortu nahi izan genuen, pedagogia feministarekin lotutako gaiak lantzen jarraitzeko. Gai horiek modu erraz, hurbil, alai... eta, batez ere, euskaraz lantzeko egin nahi genituen. Sarritan iristen zitzaigun euskarazko horrelako baliabideak sortzeko eskaerak.</p> <p>Beraz, aldizkari edo fanzineak hauek idazten hasi ginen eta erantzuna bikaina izan zen.</p> <p>Era berean, erakundeko langile guztiei bidaltzen hasi ginen, helburu bikoitzarekin: batetik, berdintasuna lantzea, eta, batez ere, euskaraz egitea. Harrera hain da ona, non aldizkari hauek hilero Berdin Berri! izenarekin argitaratzen hasten garela.</p> <p>Bi urte igaro ondoren, konturatu ginen eduki asko sortuak genituela. Eusko Jaurlaritzako laguntza eskatzeko aukera iritsi zitzaigun eta aprobetxatu genuen edizio eta baliabide guztiak webgune horretan igotzeko. Horrela, aldizkarietz gain, euskaraz sorturiko hainbat informazio, albiste, joko, elkarrizketa, podcast, ... eskuragarri utzi genituen, denak deskargatzeko edo on line erabiltzeko prest baitaude.</p> <p>Gaur egun, webgunean martxan dugu eta oso harro gaude proiektuaz. Dagoeneko, webgunean 4 gai dira nagusi: pedagogia feminista, hezkuntza afektibo-sexuala, tratu onak eta maskulinitate askatzaileak.</p>

Gai bakoitzaren barruan, marko teorikoa eta elkarrizketak txertatu dira. Erronka da, gai horietan adituak diren pertsona gehiago elkarrizketatzea eta gai bakoitzean baliabideak eskaintzea: liburuak, pelikulak, serieak, youtuberrak, ...

Jakina, lan hori borondatez egiten dugu, eta ezin diogu eskaini gustatuko litzaigukeen denbora guztia. Baina uste dugu euskarazko eduki feminista sortzen laguntzen ari garela, eta horrekin erantzuten diogula jendartearen eskaera bateri. Izan ere, Interneten gai honen inguruan dagoen informazioa erderaz edo beste hizkuntzatan dago batik bat eta informazio hori guztia euskaraz izatea ezinbestekoa dirudigu.

PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

Sakatu irudi bakoitzean webguneko informazioa ikus dezazun



Berdinberri! Eduki digital feministak, euskaratik eta euskaraz



KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA




KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA



2020

Urtarrila 2020



Otsaila 2020



Martxo 2020



Apirila 2020



Maiatza 2020



Ekaina 2020



Iraila 2020



Urtia 2020



Azaroa 2020



KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA



ETXEAN GERATU, ETA ZER?



COVID-19a dela eta, etxean gelditu behar dugu. Alarma egoera honetan, ahal dugun guztiok lan edota ikasi egingo dugu etxetik. Hori dela eta, ideia ona iruditu zaigu etxean zaudeten denboraldi honetan berdintasunari eusten jarrai diezaiozuen argitalpen berezi hau eskaintzea.)

Alde batetik, **zaintza lanetan arreta** jartzea eskatuko dizuegu, nola posible duzue elkarbanatu etxean egin behar diren lan guztiak? pentsatu al duzue orain arte nork egiten zituen horiek denak bera bakarrik? Beste aldetik, **denboraren kudeaketa** hausnartzea eskatuko dizuegu, zenbat denbora pasatzen duzue zuen burua eta besteena ezagutzen? ba al dakizue zer egin aurrean daukagun denbora honekin guztiarekin? Ale berezi honetan hainbat proposamen feminista erakutsiko dizkizuegu!

Era berean, ezinbestekoa da guretzat egoera honetan emakumeak* erdigunean jartzea: bai kalean, bai etxetan funtsezko lanak egiten dutenak, soldatarik gabe lanean dihardutenak, inderkeria matxista pairatzen jarraitzen dutenak, bakarrik bizi direnak, ... **atera diezaiozun etekina** herreroaldia honi, jarrai dezagun iraultza feministarekin!

AHIZPATASUNA ELKARTASUNA



Egun hauetan sare sozialetan hainbat mugimendu jarri dira martxan: Euskal Herriko Mugimendu Feministak, Hiritarron Harrera - Sareak, besteak beste, abian dituzte zenbait ekintza. Lehenak, deialdi orokorra **#AuzodefentsaFeminista** lelopean; bigarrenak, berriz, **#ZaintzaSarea** sortu du, laguntzeko prest?



HAIN GUSTUKO DITUGUN SEKE EDO FILMAK, NOLA JAKIN SEXISTA DIREN EDO EZ?

Alison Bechdel ilustratzaile eta artista estatubatuarra "Bechdel test" delakoaren sortzailea da. Bechdel lesbiana zen, eta amorratuta zegoen pop kulturari, zinemari, komikigintzari ez zelako LGBTBIQ pertsonarik* agertzen, ez behintzat bizitza arruntak egiten. Haren ustez, lesbiana, gay eta transexualak beti azaltzen ziren tragedia baten erdian eta sekulako klisea bilakatuta.

Hiru galderekin osatzen dute emakume honen testa, eta pelikula bat zerbaiteraino den genero-parekidea neurtzeko balio du. Testaren jatorria Alison Bechdel komiki-zintak daude. Galdere errazak dira; aitxetik, film gutxi gainditzen dute testa:

- Bi emakume edo gehiago agertzen dira obran?
- Emakume horiek hain artean hitz egiten dute?
- Beren artean hitz egiten dutenean, gizon bat ez den zerbait buruz aritzen dira?

Test honek ez du esango pelikula bat feminista den edo ez, soilik erakutsiko digu emakumeak agertzen diren edo ez eta agertzen direnean zer rola betetzen duten. Simplea, ezta?

Harrituko zara honen inguruan hausnartzen duzunean, pelikula asko testa ez dutela gainditzen. 2000. urtetik Oscarrerako proposatu dituzten filmen %45 ez du testa gainditzen; portzentajea murrizten da zuzendaria edo gidatzailea emakume bat denean.

Anita Sarkeesianek honen inguruko azalpen bikaina ematen digu bideo honetan:



<https://www.youtube.com/watch?v=bLF6sAAMB4s>

Anita Sarkeesian komunikatzaile, kultura-kritikari, feminista eta youtuber kanadarra da.

Feminismoak, kontzeptu gisa, hainbat oinarri teoriko eta praktikoetatik abiatuta, gure generoaren mende gauden zapalkuntza egituren emakume guztiak (eta generoa emakumeen espektroan duten pertsonak, eta, beraz, misoginiaren eraginpean daudenak) askatzeko borrokatzen duten mugimendu-multzo bat biltzen du.

MARKO TEORIKOA ELKARRIZKETAK

MARKO TEORIKOA

Sarrera

Marko legala

Eskola mistoa baino gehiago



KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜÍSTICA

